

Pribatuen Iragarkiak

LINUE ZEGAMA SOZIETATE KOOPERATIBOA

IRAGARKIA, Linue Zegama sozietate kooperati-
boa desagiteari buruzkoa. 10869

ARIGALA BERRI, SOZIETATE KOOPERATIBO MUGATUA

IRAGARKIA, Arigala Berri sozietate kooperatibo
mugatua erantzukizun mugatuko sozietate bihur-
tzeari buruzkoa. 10869

Xedapen Orokorrak

JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

2618

3/2007 LEGEA, apirilaren 20koa, Etxepare Euskal Ins-
titutua / Basque Institute Sortzeko eta Arautzekoa.

Eusko Legebiltzarrak 3/2007 Legea, apirilaren
20koa, Etxepare Euskal Institutua / Basque Institute
Sortu eta Arautzekoa, onartu duela jakinarazten zaie
Euskadiko herritar guztiei

EUSKO LEGEBILTZARRAK 3/2007 LEGEA,
APIRILAREN 20KOA, ETXEPARE EUSKAL
INSTITUTUA / BASQUE INSTITUTE SORTU ETA
ARAUTZEKOA

ZIOEN AZALPENA

Elkarren mendekotasuna gero eta handiagoa duen
mundu globalizatu honetan, Euskadi ezin da izan bere
baitan itxita dagoen herrialde bakartu bat; aitzitik,
mundura irekita egon behar du eta, kulturen arteko ha-
rremanak bultzatu eta haien alde egiteaz gain, bere be-
rezitasuna erakusi behar du.

Gure kanpoko presentzia iraunkor eta aktiboak Eus-
kadiren irudi positiboa islatu behar du munduan, har-
tara, ezagutza soiletik haratago joanez, nortasun eta
identitate propioak dituen etorkizuneko herrialde gisa
nazioartean onartua izan dadin.

Alderdi horretatik, euskarak eta euskal kulturak, be-
re hizkuntza ofizialetako edozeinetan eta zeinahi adie-

Anuncios Particulares

LINUE ZEGAMA, SOCIEDAD COOPERATIVA

ANUNCIO de la disolución de Linue Zegama, So-
ciedad Cooperativa. 10869

ARIGALA BERRI, SOCIEDAD COOPERATIVA LIMITADA

ANUNCIO de la transformación de Arigala Berri,
S. Coop. Ltda. en Sociedad de Responsabilidad Li-
mitada. 10869

Disposiciones Generales

PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

2618

LEY 3/2007, de 20 de abril, de Creación y Regulación
del Instituto Vasco Etxepare Euskal Institutua / Bas-
que Institute.

Se hace saber a todos los ciudadanos y ciudadanas de
Euskadi que el Parlamento Vasco ha aprobado la si-
guiente Ley

LEY 3/2007, DE 20 DE ABRIL, DE CREACIÓN Y
REGULACIÓN DEL INSTITUTO VASCO
ETXEPARE EUSKAL INSTITUTUA / BASQUE
INSTITUTE

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

En el marco de un mundo globalizado cada vez más
interdependiente, Euskadi no puede ser un país aisla-
do y encerrado en sí mismo, sino un país abierto al mun-
do que, además de estimular y apoyar las relaciones in-
terculturales, aporte su propia singularidad.

Nuestra presencia exterior, permanente y activa, de-
be reflejar una imagen positiva de Euskadi en el mun-
do, que trascienda del simple conocimiento y contri-
buya a su reconocimiento internacional como un país
de futuro dotado de personalidad e identidad propia.

En este sentido, el euskera y la cultura vasca en cual-
quiera de sus lenguas oficiales, manifestaciones, sopor-

razpen, euskarri, bide eta adierazmoldetan, gure identitatearen ezaugarriarik sakonena biltzen dituzte eta hizkuntza- eta kultura-ondarea gordetzen dute. Ondare hori gure mugetatik kanpoko beste komunitate eta herrialde batzuekin partekatzen dugu.

Euskara, euskal kulturaren ondare den aldetik, Euskal Herriaren identitatearen funtsezko elementua da, eta belaunaldiz belaunaldi gugana iritsitako milaka urteko legatua osatzen du. Hori dela eta, euskal gizarteari eta, bereziki, botere publikoei dagokie ondare horri bizirik eusteko erantzukizuna, komunikazio- eta harreman-tresna bezala erabilia, gaur egungo hizkuntza modernoan izan dadin eta etorkizuneko mundu eleaniztuan atak zabalik izan ditzan. Orain arte ezezagunak zituen hainbat erabilera-gunetara iritsi denez gero, euskarak azken urteetan ospea eta presentzia lortu du gure gizartearen; aurrerantzean, berriz, ospe eta presentzia hori Euskal Autonomia Erkidegotik kanpora eraman behar da eta, horrela, sustapen unibertsalaren bidez, euskal hizkuntzaren onspenari bide eta bultzada emango zaio nazioartean ere.

Ildo horretatik, kanpoko kultura-aniztasunari eta unibertsaltasunari irekita agertzeaz gain, euskal komunitatea bere identitate kulturalari eutsita proiektatuko da kanpora, bere adierazpen eta agerbide guztietan.

Asmo horiek kontuan hartuz, lege honen xedea Etxepare Euskal Institutua / Basque Institute sortzea eta arautzea da. Helburu nagusi hau izango du: gure inguruko instituzio ospetsuen antzera, euskara eta euskal kultura sustatzea, hedatzea eta kanpora proiektatzea. Zuzenbide pribatuko erakunde publikoa izateak bere helburuak betetzeko behar adinako autonomiaz baliatzeko aukera emango dio.

Bestalde, Etxepare Euskal Institutuak Euskal Autonomia Erkidegoaren kanpoko ekintzaren eta hizkuntza- eta kultura-politikaren esparru orokorrean gauzatuko ditu bere jarduerak, eta jarduera horiek beren lana kanpora proiektatzen duten organoek eta administrazio publikoek egindakoekin koordinatuko ditu, bai eta erakunde publikoaren helburuetara zuzendutako edozein instituziok egindakoekin ere, bereziki, euskal komunitate linguistikoa dagoen lurraldeetako erakundeekin.

Azkenik, bere helburuak betetzeko, batik bat ildo hauek jorratuko ditu: euskara ikertzea eta irakastea, bereziki unibertsitateetan eta goi-mailako ikasketetako zentroetan; kultura zabaltzeko jarduerak gauzatzea, Estatuko eta nazioarteko erakundeekin eta herrialde anfitrioietako erakundeekin elkarlanean; eta informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriek eskaintzen diguten ahalmen handiaz baliatzea, bai euskara eta euskal kultura hedatzeko, bai horren guztiaren gastua murrizteko.

Laburbilduz, euskara eta euskal kulturarekiko interesa zabaltzea da Etxepare Euskal Institutuaren asmoa,

tes, medios y formas de expresión, recogen los trazos más profundos de nuestra propia identidad y atesoran un patrimonio lingüístico y cultural que es compartido por otras comunidades y pueblos más allá de nuestras propias fronteras.

El euskera, como patrimonio de la cultura vasca, es un elemento fundamental de la identidad del pueblo vasco y constituye un legado milenario que ha llegado hasta nosotros de generación en generación. Por tanto, corresponde a la sociedad vasca en su conjunto y, particularmente, a los poderes públicos la responsabilidad de mantenerlo vivo como un instrumento de comunicación y de relación, como una lengua moderna abierta al mundo en un futuro entorno multilingüe. El prestigio y la presencia social que el euskera ha alcanzado en los últimos años, debido a su acceso a numerosos espacios de uso que le eran desconocidos, debe ahora tener su prolongación hacia el exterior de la Comunidad Autónoma mediante una promoción universal que favorezca y potencie el reconocimiento internacional de la lengua vasca.

En el mismo sentido, además de mostrarse abierta a la diversidad cultural ajena y a la universalidad, la comunidad vasca debe también proyectarse al exterior con su propia identidad cultural en todas sus expresiones y manifestaciones.

Con tales propósitos, la presente ley procede a la creación y regulación del Instituto Vasco Etxepare Euskal Institutua / Basque Institute, que, a semejanza de prestigiosas instituciones de nuestro entorno, asume como objetivo primordial la promoción, difusión y proyección exterior del euskera y de la cultura vasca. Su configuración como ente público de derecho privado le permitirá disponer de la necesaria autonomía para el cumplimiento de sus fines.

Por otra parte, el Instituto Vasco Etxepare desarrollará sus actuaciones en el marco general de la acción exterior y de la política lingüística y cultural de la Comunidad Autónoma de Euskadi y coordinará sus actividades con cuantas lleven a cabo los órganos que realizan una labor con proyección internacional, las administraciones públicas o cualesquiera otras instituciones orientadas a los fines del ente público, especialmente con las de los territorios en los que se asienta la comunidad lingüística vasca.

Por último, para el cumplimiento de sus fines, atenderá de forma especial la investigación y enseñanza del euskera, principalmente en las universidades y centros de estudios superiores, y la realización de actividades de difusión cultural en colaboración con otros organismos nacionales e internacionales y con entidades de los países anfitriones, y utilizará la enorme potencialidad de las nuevas tecnologías de la información y comunicación tanto para difundir la lengua y la cultura vascas como para reducir los costes derivados de todo ello.

En definitiva, el Instituto Vasco Etxepare aspira a entender el interés por la cultura y la lengua vascas y, en

eta, oro har, gure herrialdeko errealitatea euskaraz hitz egiten duten mundu osoko kolektibitateetara eta hainbat herritarrengana hurbiltzea, herritar horiek euskal komunitateak dituzten herrialdeetan bizi direlako edo haien herrialdeekiko harreman historiko, kultural edo komertzialen garrantziak hala aholkatzen duelako.

1. artikulua.— Legearen xedea.

Lege honek Etxepare Euskal Institutua / Basque Institute sortzea eta arautzea du helburu, euskara eta euskal kultura, bere hizkuntza ofizialetako edozeinetan eta zeinahi adierazpen, euskarri, bide eta adierazmoldetan, Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo sustatzeko, hedatzeko eta proiektatzeko.

2. artikulua.— Izaera eta araubide juridikoa.

1.— Etxepare Euskal Institutua nortasun juridiko propioa duen zuzenbide pribatuko erakunde publikoa da, bere helburuak betetzeko jarduteko gaitasuna du eta kultura arloan eskuduna den Jaurlaritzako sailari atxikita dago.

2.— Lege honek, antolakuntza- eta jarduera-araudiak eta garapen-xedapenek arautuko dute Etxepare Euskal Institutua. Bere jarduerak gauzatzean zuzenbide pribatuari jarraituko dio, baina Administrazioaren ahalak baliatzen dituenean —zuzeneko esleipenaren bidez edo eskuordetzaren bidez— zuzenbide publikoari lotuko zaio. Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Orokorraren gaiei dagokienez, espresuki aplikatzeak zaizkion xedapenei jarraituko die eta, xedapen horiekiko kontraesanik ez dagoenean, zuzenbide pribatuari.

3.— Etxepare Euskal Institutuaren mendeko zentroak ez dira administrazio-organotzat hartuko; hala ere, Administrazioaren ahalak baliatzean, administrazio-organoen araubide juridikoaren arabera jardungo dute egin-tzak eratzeari eta kanporatzeari dagokien guztian.

3. artikulua.— Helburuak.

Etxepare Euskal Institutuaren helburuak hauek dira:

a) Euskararen irakaskuntza, ikasketa eta erabilera mundu osoan sustatzea, hura partekatzen duten komunitate guztien ekarpenak errespetatuz.

b) Euskal kultura, bere hizkuntza ofizialetako edozeinetan eta zeinahi adierazpen, euskarri, bide eta adierazmoldetan, kanpoan ezagutarazten eta hedatzen laguntzea, bereziki euskaraz sortutako kultura-eskaintza sustatuz eta bermatuz.

c) Gure herrialdeko errealitatea euskaraz hitz egiten duten mundu osoko kolektibitateetara eta hainbat herritara hurbiltzea, herri horietan euskal komunitateak dituztelako edo herri horiekiko harreman historiko, kultural edo komertzialen garrantziak hala aholkatzen duelako.

d) Euskarak nazioartean onespina lor dezan bultzatu eta sustatzea.

general, a acercar la realidad de nuestro país a las colectividades de habla vasca en todo el mundo y a todos los ciudadanos y ciudadanas de aquellos países donde la existencia de comunidades vascas o las relaciones históricas, culturales o comerciales así lo aconsejen.

Artículo 1.— Objeto de la ley.

Es objeto de esta ley la creación y regulación del Instituto Vasco Etxepare Euskal Institutua / Basque Institute, para la promoción, difusión y proyección, fuera de la Comunidad Autónoma vasca, del euskera y de la cultura vasca en cualquiera de sus lenguas oficiales, manifestaciones, soportes, medios y formas de expresión.

Artículo 2.— Naturaleza y régimen jurídico.

1.— El Instituto Vasco Etxepare es un ente público de derecho privado, con personalidad jurídica propia y capacidad de obrar para el cumplimiento de sus fines, adscrito al departamento del Gobierno Vasco competente en materia de cultura.

2.— El Instituto Vasco Etxepare se regirá por la presente ley, su reglamento de organización y funcionamiento y las disposiciones que los desarrollen. En el ejercicio de sus actividades se regirá fundamentalmente por el derecho privado, si bien, cuando ejerza potestades administrativas, por atribución directa o por delegación, se sujetará al derecho público, y, en relación con las materias propias de la Hacienda General del País Vasco, por las disposiciones referentes a las mismas que le sean de expresa aplicación, y, en lo que no las contradigan, por el derecho privado.

3.— Los centros dependientes del Instituto Vasco Etxepare no tendrán la consideración de órganos administrativos, sin perjuicio de que deban sujetarse al régimen jurídico de los mismos en todo lo concerniente a la formación y exteriorización de sus actos cuando ejerzan potestades administrativas.

Artículo 3.— Fines.

Son fines del Instituto Vasco Etxepare:

a) Promover universalmente la enseñanza, el estudio y el uso del euskera, respetando las aportaciones de todas las comunidades que lo comparten.

b) Contribuir a dar a conocer y a difundir en el exterior la cultura vasca en cualquiera de sus lenguas oficiales, manifestaciones, soportes, medios y formas de expresión, promoviendo y apoyando en especial la oferta cultural creada en euskera.

c) Acercar la realidad de nuestro país a las colectividades de habla vasca en todo el mundo y a aquellas localidades donde la existencia de las comunidades vascas o las relaciones históricas, culturales o comerciales así lo aconsejen.

d) Favorecer y potenciar el reconocimiento internacional de la lengua vasca.

e) Bere jarduerak hedatzen eta haien kalitatea hobetzen lagunduko duten behar adina neurri eta ekintza sustatzea.

f) Halaber, euskal kulturari buruzko ikerketa sustatzea, bereziki unibertsitate eta goi-mailako ikerketarako erakundeetan.

4. artikulua.— Jarduerak.

1.— Bere helburuak betetzeko, Etxepare Euskal Institutuak jarduera hauek egin ahal izango ditu, bere ekimenez edo hirugarrenekin elkarlanean:

a) Euskara irakasteko ikastaroak sortu, sustatu eta antolatzea.

b) Euskararen ezagutza egiaztatzeko Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak onartuta dituen probak antolatzea, indarrean dagoen araudi erregulatzailerak ezartzen duenarekin bat etorritz.

c) Hainbat ekintza sustatzea eta aurrera eramatea, hala nola euskara hedatzea helburu dutenak, bereziki sare telematikoa nahiz informazioaren teknologia berriez eta hedabide eta ikus-entzuzkoen baliatuta; irakasleak prestatzera zuzendutakoak, eta euskararen irakaskuntzan laguntzeko materiala argitaratzera bideratutakoak.

d) Irakurletzak ezar daitezen laguntzea eta eskalari eta atzerriko ikerketa-zentroi laguntzeko eta haiekin lankidetzan aritzeko organo gisa jardutea.

e) Euskal kulturaren sortze-lana kanpoan sustatzeko ekintzak eta estrategiak gauzatzea, artisten eta artelanen kanpoko zirkulazioa bultzatzea eta euskal ondare artistikoaren ezagutza zabaltzea, bereziki euskaraz sortutako kultura-eskaintza sustatuz eta bermatuz.

f) Erakunde publiko eta pribatuei, institutuaren helburuak betetzera zuzendutako jarduerak aurrera eramaten dituztenean, diru-laguntzak ematea.

g) Kultura zabaltzeko jarduerak Estatuko nahiz nazioarteko beste erakunde batzuekin eta herrialde anfitrioiarekin erakundeekin elkarlanean egitea.

h) Hizkuntza, hezkuntza eta kultura jendarteratzeko azoka eta erakusketetan parte hartzea.

i) Unibertsitate eta beste erakunde batzuekin —publikoak nahiz pribatuak, Estatukoak nahiz atzerrikoak— hitzarmenak eta, hala dagokionean, elkarlanerako protokoloak sinatzea.

j) Hizkuntza eta kultura zabaltzeko jarduerak erakunde hauekin gauzatzea eta koordinatzea: gaztelania, euskara bezala Euskadiko hizkuntza ofiziala, katalana eta galegoa sustatu eta kanpoan zabaltzea helburu duten erakundeekin, bai eta euskal hizkuntza eta kultura sustatzen jarduten duten euskararen gainerako lurraldeetako erakundeekin ere.

k) Institutuaren helburuak betetzera zuzendutako beste eginkizun eta jarduera batzuk gauzatzea.

2.— Etxepare Euskal Institutuak arreta berezia jarriko dio, bere jardueretan, euskal komunitate linguisti-

e) Fomentar cuantas medidas y acciones contribuyan a la difusión y mejora de la calidad de sus actividades.

f) Así mismo, promover la investigación relativa a la cultura vasca, especialmente en las universidades y organismos de investigación superior.

Artículo 4.— Actividades.

1.— Para el cumplimiento de sus fines, el Instituto Vasco Etxepare, por iniciativa propia o en colaboración con terceros, podrá:

a) Crear, promover y organizar cursos para la enseñanza del euskera.

b) Organizar pruebas de acreditación de conocimiento del euskera con reconocimiento por la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi de conformidad con lo señalado en la normativa reguladora vigente.

c) Fomentar y realizar acciones encaminadas a la difusión del euskera, en particular a través de redes telemáticas y nuevas tecnologías de la información, de medios de comunicación social y de medios audiovisuales; a la formación del profesorado, y a la edición de materiales de apoyo a la enseñanza del euskera.

d) Apoyar el establecimiento de lectorados y actuar como órgano de cooperación y asistencia para los vascológicos y centros extranjeros de investigación.

e) Llevar a cabo acciones y estrategias de promoción exterior de la creación cultural vasca, fomentar la circulación exterior de artistas y obras y difundir el conocimiento del patrimonio artístico vasco, apoyando en especial la oferta cultural en euskera.

f) Otorgar subvenciones a entidades públicas y privadas que desarrollen actuaciones conducentes al cumplimiento de los fines del instituto.

g) Realizar actividades de difusión cultural en colaboración con otros organismos nacionales e internacionales y con entidades de los países anfitriones.

h) Participar en ferias y exposiciones de divulgación de la lengua, la educación y la cultura.

i) Establecer convenios y, en su caso, protocolos de colaboración con universidades y otras entidades, públicas o privadas, nacionales o extranjeras.

j) Realizar y coordinar actividades de promoción lingüística y cultural con los organismos que tienen por objeto la promoción y difusión exterior del castellano, lengua oficial de Euskadi como el euskera, del catalán y del gallego, así como con los organismos del resto de los territorios del euskera dedicados al fomento de la lengua y la cultura vascas.

k) Realizar cualesquiera otras funciones y actividades conducentes al cumplimiento de sus fines.

2.— En sus actividades, el Instituto Vasco Etxepare atenderá fundamentalmente al patrimonio lingüístico

koaren herrialde eta herrietako hizkuntza- eta kultura-ondare komunari.

3.– Etxepare Euskal Institutuak Euskal Autonomia Erkidegoaren kanpoko ekintzaren eta hizkuntza- eta kultura-politikaren esparru orokorrean gauzatuko ditu bere jarduerak, euskararen normalizazioan aritzen diren erakundeekin lankidetzako eta elkarlanerako harreman egonkorrak izaten saiatuko da, eta jarduera horiek administrazio publikoekin egindakoekin koordinatuko ditu, bai eta erakunde publikoaren helburuetara zuzendutako edozein instituziok egindakoekin ere, bereziki euskal komunitate linguistikoa dagoen lurraldeetako instituzioenekin.

5. artikulua.– Egoitza eta beste zentro batzuk.

1.– Etxepare Euskal Institutuaren egoitza Donostian egongo da.

2.– Etxepare Euskal Institutuak zentro-sare bat eduki ahal izango du bere helburuak betetzeko. Horretarako, beharrezkoa denean, merkataritza-sozietateak, fundazioak edo irabazi-asmorik gabeko erakundeak sortu ahal izango ditu eta haietan parte hartu, Gobernu Kontseiluak alde aurretik horretarako baimena eman da.

6. artikulua.– Organo artezkariak.

1.– Etxepare Euskal Institutuaren organo artezkariak Patronatua, Zuzendaritza Kontseilua eta zuzendaria dira.

2.– Organo horiek esleiturik dituzten eginkizunak betetzeko ematen dituzten administrazio-egintzetan amaituko da administrazio-bidea.

7. artikulua.– Patronatua.

1.– Patronatuko ohorezko lehendakaritza lehendakariari dagokio.

2.– Patronatuaren lehendakaritza exekutiboa institutua atxikita dagoen sailaren titularrari dagokio. Patronatuak beste kide hauek ere izango ditu:

a) Kanpoko ekintza, kultura, hezkuntza, hizkuntza-politika eta ogasun eta herri-administrazioaren arloetan eskudunak diren sailak ordezkatzeko dituzten bost kide.

b) Foru-aldundietatik kide bana, Euskal Autonomia Erkidegoa osatzen duten lurralde historikoetako foru-aldundietako bakoitzaren ordezkari gisa.

c) Euskal letrak, filologia eta kultura, bereziki Euskaltzaindia, Eusko Ikaskuntza, euskal unibertsitateak eta beste gizarte-erakunde batzuk, ordezkatzeko dituzten hamabost kide. Kide horiek Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernu Kontseiluak izendatuko ditu, euskal komunitate linguistikoa osatzen duten lurralde guztien euskal kulturari egindako ekarpenak kontuan hartuta.

y cultural que es común a los países y pueblos de la comunidad lingüística vasca.

3.– El Instituto Vasco Etxepare desarrollará sus actuaciones en el marco general de la acción exterior y de la política lingüística y cultural de la Comunidad Autónoma de Euskadi, procurará mantener relaciones de cooperación y colaboración estables con las entidades dedicadas a la normalización del euskera y coordinará sus actividades con cuantas realicen las administraciones públicas o cualesquiera otras instituciones orientadas a los fines del ente público, especialmente con las de los territorios en los que se asienta la comunidad lingüística vasca.

Artículo 5.– Sede y otros centros.

1.– La sede del Instituto Vasco Etxepare se establece en Donostia-San Sebastián.

2.– El Instituto Vasco Etxepare, para el cumplimiento de sus fines, podrá disponer de una red de centros, para lo cual podrá, previa autorización del Consejo de Gobierno, crear sociedades mercantiles, fundaciones o entidades sin fines de lucro y participar en ellas, cuando ello sea necesario.

Artículo 6.– Órganos rectores.

1.– Los órganos rectores del Instituto Vasco Etxepare Euskal Institutua son el Patronato, el Consejo de Dirección y la directora o director.

2.– Los actos administrativos que dicten estos órganos conforme a las funciones que les vienen atribuidas agotan la vía administrativa.

Artículo 7.– El Patronato.

1.– La presidencia de honor del Patronato corresponde al lehendakari o la lehendakari.

2.– La presidencia ejecutiva del Patronato corresponde al titular o a la titular del departamento al que se encuentre adscrito el instituto. El Patronato estará integrado, además, por:

a) Cinco vocales en representación de los departamentos competentes en materia de acción exterior, cultura, educación, política lingüística y hacienda y administración pública.

b) Una vocal o un vocal en representación de cada una de las diputaciones forales de los territorios históricos de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

c) Quince vocales en representación de las letras, la filología y la cultura vascas, en especial de la Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia, de la Sociedad de Estudios Vascos-Eusko Ikaskuntza, de las universidades vascas y de otras instituciones sociales, que serán nombrados por el Consejo de Gobierno de la Comunidad Autónoma de Euskadi, teniendo en cuenta las aportaciones a la cultura común de todos los territorios de la comunidad lingüística vasca.

d) Kulturaren sektore profesionalak ordezkatzen dituzten bost kide. Kide horiek Eusko Legebiltzarrak proposatuta izendatuko dira.

e) Institutuko zuzendaria. Idazkari gisa arituko da, eta hitza izango du baina botorik ez.

3.– Etxepare Euskal Institutuaren antolakuntza- eta jarduera-araudiak zehaztuko du nor izango den berezko kide karguaren arabera. Gainerako kideak lau urterako izendatuko dira, eta, epe hori igarotakoan, beste lau urterako ere izendatu ahal izango dira berriz, baina beste behin bakarrik.

4.– Patronatua, gutxienez, urtean behin bilduko da, eta eginkizun hauek izango ditu:

a) Institutuak egin beharreko jardunen artean lehen-tasunak proposatzea.

b) Urteko aurrekontua, aurreko aurrekontuaren betekuntza, institutuaren jarduera-plan orokorrak eta urteko memoria ezagutzea eta, onartu aurretik, horiei buruzko iritzia ematea.

c) Institutuaren funtzionamendua hobetzen eta haren helburuak betetzen lagun dezaketen ekimenak proposatzea.

d) Antolakuntza- eta jarduera-araudiari buruz Zuzendaritza Kontseiluak proposatutako aldaketak ezagutztea eta horiei buruzko iritzia ematea.

e) Antolakuntza- eta jarduera-araudiak esleitzen dizkion gainerako eginkizunak betetzea.

8. artikulua.– Zuzendaritza Kontseilua.

1.– Zuzendaritza Kontseiluko kideak hauek dira:

a) Kontseiluko lehendakaria. Institutua atxikita dagoen sailaren ordezkari batek beteko du kargu hori eta, gutxienez, sailburuorde-maila izango du.

b) Kanpoko ekintza, hizkuntza-politika eta ogasun eta herri-administrazioaren arloetan eskudunak diren sailak ordezkatzen dituzten hiru kide; gutxienez, zuzendari-maila izango dute.

c) Gobernu Kontseiluak izendatutako bi kide, Patronatuak proposatuta Patronatuaren beraren ordezkari gisa. Kargu hori lau urterako izango da, eta beste behin bakarrik berritu ahal izango da epe hori igarotakoan.

d) Etxepare Euskal Institutuaren zuzendaria. Idazkari gisa arituko da, eta hitza izango du baina botorik ez.

2.– Zuzendaritza Kontseilua, gutxienez, urtean bitan bilduko da, eta eginkizun hauek izango ditu:

a) Etxepare Euskal Institutuaren jarduera-plan orokorrak onartzea.

b) Laguntzen eta diru-laguntzen programak onartzea, baita horiek emateko oinarritzko irizpideak ere.

d) Cinco vocales en representación de los distintos sectores profesionales de la cultura, designados a propuesta del Parlamento Vasco.

e) La directora o el director del instituto, que actúa de secretaria o secretario, con voz y sin voto.

3.– El reglamento de organización y funcionamiento del Instituto Vasco Etxepare determinará las vocales y los vocales que hayan de ostentar la condición de natos en razón de su cargo. El resto será nombrado por un período de cuatro años, renovables una sola vez consecutiva.

4.– Corresponden al Patronato, que se reunirá al menos una vez al año, las siguientes funciones:

a) Proponer las prioridades de actuación del instituto.

b) Conocer e informar, con carácter previo a su aprobación, el presupuesto, la ejecución del presupuesto anterior, los planes generales de actividades del instituto y la memoria anual del mismo.

c) Proponer cuantas iniciativas puedan contribuir al mejor funcionamiento del instituto y al cumplimiento de sus fines.

d) Conocer e informar sobre las modificaciones del reglamento de organización y funcionamiento que proponga el Consejo de Dirección.

e) Cualesquiera otras funciones que le encomiende el reglamento de organización y funcionamiento.

Artículo 8.– El Consejo de Dirección.

1.– El Consejo de Dirección está compuesto por:

a) La presidenta o el presidente, cargo que recae en una representante o un representante, con rango mínimo de viceconsejera o viceconsejero, del departamento al que se encuentre adscrito el instituto.

b) Tres consejeras o consejeros designados en representación de los departamentos competentes en materia de acción exterior, política lingüística y hacienda y administración pública, con rango mínimo de directora o director.

c) Dos consejeros o consejeras nombradas por el Consejo de Gobierno por un período de cuatro años, renovables una sola vez consecutiva, en representación y a propuesta del Patronato.

d) La directora o director del Instituto Vasco Etxepare, que actúa de secretaria o secretario, con voz y sin voto.

2.– Corresponden al Consejo de Dirección, que se reunirá al menos dos veces al año, las siguientes funciones:

a) Aprobar los planes generales de actividades del Instituto Vasco Etxepare.

b) Aprobar los programas de ayudas y subvenciones, así como los criterios básicos para su otorgamiento.

- c) Urteko aurrekontuaren aurreproiektua onartzea.
- d) Urteko memoria onartzea.
- e) Plantillak eta langileen ordainsari-araubidea onartzea, aplikatzekoak diren lege-baldintzen arabera.
- f) Gobernu Kontseiluari Etxepare Euskal Institutuaren antolakuntza- eta jarduera-araudiaren aldaketa proposatzea.
- g) Hitzarmenak eta protokoloak sinatzeko oinarriko irizpideak zehaztea.
- h) Etxepare Euskal Institutuaren jardueren prezioak finkatzea.
- i) Helburuak hobeto betetzeko beharrezkoa denean, merkataritza-sozietate, fundazio edo irabazi-asmorik gabeko erakundeak sortzea edo haietan parte hartzea onartzea, Gobernu Kontseiluak alde aurretik baimenduta.
- j) Institutuaren mendeko zentroak sortzea edo kentzea onartzea, Gobernu Kontseiluak alde aurretik horretarako baimena emanda.
- k) Etxepare Euskal Institutuko zuzendaria izendatzeko proposamena ezagutzea eta horri buruzko iritzia ematea.
- l) Antolakuntza- eta jarduera-araudiak esleitzen dizkion gainerako eginkizunak betetzea.

9. artikulua.– Zuzendaria.

1.– Etxepare Euskal Institutuko zuzendaria Gobernu Kontseiluak izendatuko du, institutua atxikita dagoen sailaren titularrak halaxe proposatuta.

2.– Zuzendariari dagokio:

- a) Institutua eta institutuko langileak zuzentzea.
- b) Institutuaren plan estrategikoa eta kudeaketa-planak eta Patronatuaren eta Zuzendaritza Kontseiluaren erabakiak proposatu eta gauzatzea.
- c) Etxepare Euskal Institutuaren ohiko ordezkaria izatea.
- d) Etxepare Euskal Institutuaren jardueren urteko memoria egitea eta institutuen aurrekontuaren aurreproiektu-proposamena eta likidazioa Zuzendaritza Kontseiluari aurkeztea.
- e) Hitzarmenak eta protokoloak formalizatzea.
- f) Institutuaren izenean kontratazioak egitea, bai eta gastuen erabilera baimentzea eta ordainketak agintzea ere, indarrean dagoen legerian ezarritakoaren arabera.
- g) Etxepare Euskal Institutuak eman beharreko laguntzak eta diru-laguntzak esleitzea.
- h) Antolakuntza- eta jarduera-araudiak esleitzen dizkion gainerako eginkizunak betetzea.

10. artikulua.– Egitura.

- c) Aprobar el anteproyecto de presupuesto anual.
- d) Aprobar la memoria anual.
- e) Aprobar, de acuerdo con las condiciones legales que sean aplicables, las plantillas y el régimen retributivo de su personal.
- f) Proponer al Consejo de Gobierno la modificación del reglamento de organización y funcionamiento del Instituto Vasco Etxepare.
- g) Fijar los criterios básicos para la firma de convenios y protocolos.
- h) Fijar los precios de las actividades del Instituto Vasco Etxepare.
- i) Aprobar, previa autorización del Consejo de Gobierno, la creación de sociedades mercantiles, fundaciones o entidades sin fines de lucro o la toma de participación ellas, cuando ello sea necesario para el mejor cumplimiento de los fines del instituto.
- j) Aprobar, con la autorización previa del Consejo de Gobierno, la creación y supresión de centros dependientes del instituto.
- k) Conocer e informar la propuesta de nombramiento de la directora o director del Instituto Vasco Etxepare.
- l) Cualesquiera otras funciones que le encomiende el reglamento de organización y funcionamiento.

Artículo 9.– La directora o director.

1.– La directora o director del Instituto Vasco Etxepare será nombrado por el Consejo de Gobierno, a propuesta del titular o de la titular del departamento al que se encuentre adscrito el instituto.

2.– Corresponde a la directora o director:

- a) La dirección del instituto y de su personal.
- b) La propuesta y ejecución del plan estratégico y de los planes de gestión del instituto y de los acuerdos del Patronato y del Consejo de Dirección.
- c) La representación ordinaria del Instituto Vasco Etxepare.
- d) La elaboración de la memoria anual de actividades del Instituto Vasco Etxepare y la elevación al Consejo de Dirección de la propuesta de anteproyecto de su presupuesto y su liquidación.
- e) La formalización de convenios y protocolos.
- f) La contratación en nombre del instituto, así como la disposición de gastos y ordenación de pagos, de acuerdo con lo previsto en la legislación vigente.
- g) La concesión de ayudas y subvenciones que corresponda otorgar al Instituto Vasco Etxepare.
- h) Cualesquiera otras funciones que le encomiende el reglamento de organización y funcionamiento.

Artículo 10.– Estructura.

Etxepare Euskal Institutuaren antolakuntza- eta jarduera-araudiak zehaztuko du bere jarduerak zein ekin-tza-arlotan antolatuko diren.

11. artikulua.— Araubide ekonomikoa.

1.— Etxepare Euskal Institutuaren ondasunak eta baliabide ekonomikoak honako hauek izango dira:

a) Institutuaren ondarea osatzen duten ondasunak eta balioak, bai eta ondare horretatik eratorritako produktua eta errentak ere.

b) Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorretan urtero esleitzen zaizkion diru-izendapenak eta transferentziak.

c) Zerbitzuak emategatik izaten dituen diru-sarrerak, bai eta, indarrean dagoen legerian ezarritakoaren arabera, jaso behar dituenak eta bere jardueren ondorioz sortzen direnak ere.

d) Pertsona publikoek edo pribatuek institutuari ematen dizkieten diru-laguntzak, borondatezko ekarpenak, dohaintzak, jaraunspenak eta legatuak.

e) Lege- edo araudi-xedapenen arabera dagokion beste edozein baliabide.

2.— Etxepare Euskal Institutuaren kontrol ekonomikoa iraunkorra izango da eta arlo ekonomiko-finantzarioan nahiz kudeaketan egingo da, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko ekainaren 30eko 14/1994 Legean ezarritakoaren arabera, eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari dagokion kontrola alde batera utzi gabe.

3.— Institutuaren kontratu-jarduera Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari dagozkion lege-xedapenetara egokituko da, eta ekintza-arlo horretako egitekoak eta eskumenak antolakuntza- eta jarduera-araudian zehaztuko dira.

12. artikulua.— Langileen araubidea.

1.— Etxepare Euskal Institutuko langileak Lan Zuzenbidearen araupean arituko dira, eta, hala dagokionean, kontratazioa egiten den herrialdeetan indarrean dagoen araudipean.

2.— Langileak merezimendu-, gaitasun- eta publizitate-printzipioen arabera hautatu beharko dira.

3.— Etxepare Euskal Institutuaren mendeko irakasleek euskara irakasteko titulazio eta prestakuntza didaktiko egokia izan beharko dute.

13. artikulua.— Institutuaren urteko txostena.

Etxepare Euskal Institutuak txosten bat bidaliko dio urtero Eusko Legebiltzarrari bere jardueraren emaitzak, jarduera-plan orokorrak eta horien egikaritzea azaltzeko, bai eta erakunde publiko horren urteko memoria ere.

El reglamento de organización y funcionamiento del Instituto Vasco Etxepare determinará las áreas de actuación en las que se organizarán sus actividades.

Artículo 11.— Régimen económico.

1.— Los bienes y medios económicos del Instituto Vasco Etxepare estarán integrados por:

a) Los bienes y valores que constituyan su patrimonio y los productos y rentas del mismo.

b) Las consignaciones y transferencias que anualmente se le asignen en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

c) Los ingresos que obtenga por la prestación de sus servicios, así como los que, conforme a lo previsto en la legislación vigente, pudiera corresponderle percibir y los que se produzcan como consecuencia de sus actividades.

d) Las subvenciones, aportaciones voluntarias, donaciones, herencias y legados que se otorguen a su favor por personas públicas o privadas.

e) Cualquier otro recurso que pueda corresponderle de acuerdo con las disposiciones legales o reglamentarias.

2.— El control económico del Instituto Vasco Etxepare se ejercerá en la modalidad de control económico-financiero y de gestión de carácter permanente, de acuerdo con lo establecido en la Ley 14/1994, de 30 de junio, de Control Económico y Contabilidad de la Comunidad Autónoma de Euskadi, y sin perjuicio del que corresponda al Tribunal Vasco de Cuentas Públicas.

3.— La actividad contractual del instituto se ajustará a las disposiciones legales aplicables a la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi, detallándose en el reglamento de organización y funcionamiento los cometidos y competencias en este ámbito de actuación.

Artículo 12.— Régimen de personal.

1.— El personal del Instituto Vasco Etxepare se regirá por las normas de Derecho laboral y, en su caso, por la normativa vigente en los países donde se haga la contratación.

2.— La selección del personal habrá de hacerse de acuerdo con los principios de mérito, capacidad y publicidad.

3.— El personal docente dependiente del Instituto Vasco Etxepare deberá estar en posesión de la titulación y formación didáctica adecuada para la enseñanza del euskera.

Artículo 13.— Informe anual del instituto.

El Instituto Vasco Etxepare remitirá un informe anual al Parlamento Vasco en el que se dará cuenta de los resultados de su actividad, de los planes generales de actividades y de la ejecución de los mismos, así como una memoria anual del ente público.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lebenengoa.– Etxepare Euskal Institutuaren jardueren hasiera.

1.– Etxepare Euskal Institutuaren antolakuntza- eta jarduera-araudia onartu eta gero, Jaurlaritzari dagokio institutua abian jartzea eta jardueren hasiera zehaztea.

2.– Etxepare Euskal Institutuko organo artezkarie-tako kideen izendapena nahiz organo horien eraketa jardueren hasiera baino lehen egingo dira.

Jardueren hasiera eta dagokion Aurrekontuen legea indarrean sartzea batera gertatzen ez badira, Gobernu Kontseiluak onartuko ditu institutuaren ustiapen- eta kapital-aurrekontuak, baita institutuaren jarduerak hasten diren ekonomia-ekitaldiari dagozkion finantza arloko behin-behineko egoera-orriak ere, eta horren berri emango dio Eusko Legebiltzarreko Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontu Batzordeari, 15 eguneko epean. Horretarako, aurrekontuen arloan eskuduna den Jaurlaritzako sailari baimena ematen zaio aurrekontuok osatzeko beharrezkoak diren aurrekontu-aldaketak egiteko, baina aldaketa horiek ezin dute handitu institutuaren jardueren hasieran indarrean zeuden Aurrekontu Orokorretako partidetan izendatutako zenbateko globala.

Bigarrena.– Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrari edo haren erakunde autonomoei atxikitako langileak sartzea.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrean edo haren mendeko erakunde batean zerbitzuak ematen dituzten lan-kontratuko langileek, Etxepare Euskal Institutuak –lege honi, institutuaren antolakuntza- eta jarduera-araudiari eta ezartzen diren araei jarraituta– bere gain hartutako funtzio batzuk betetzen badituzte, erakunde publiko horretan sartuko dira aplikagarri den lan-legeriarekin bat etorritz.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrean edo haren mendeko erakunde batean zerbitzuak ematen dituzten funtzionarioek, Etxepare Euskal Institutuak –lege honi, institutuaren antolakuntza- eta jarduera-araudiari eta ezartzen diren araei jarraituta– bere gain hartutako eginkizun batzuk betetzen badituzte, honako aukera hauek izango dituzte:

a) Etxepare Euskal Institutuan lan-kontratuko langile gisa sartzea, betiere Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako antzinasunak dituen ondorio guztiak onartuta, eta administrazio horretan borondatezko eszedentzia-egoeran gelditzea.

b) Etxepare Euskal Institutuan funtzionario-egoerari eustea eta erakunde publiko horretan desagertuko den lanpostu bat betetzea. Lanpostu hori desagertuko da funtzionarioak behin betiko beste plaza bat lortzen duenean edo lanpostua gordetzera behartzen ez duten arrazoiengatik hutsik gelditzen denean.

DISPOSICIONES ADICIONALES

Primera.– Inicio de actividades del Instituto Vasco Etxepare.

1.– La puesta en marcha e inicio de las actividades del Instituto Vasco Etxepare se determinará por el Gobierno en el momento en el que se apruebe su reglamento de organización y funcionamiento.

2.– El nombramiento de los miembros y los miembros de los órganos rectores de Instituto Vasco Etxepare y la constitución de dichos órganos deberán producirse con anterioridad al inicio de las actividades.

Para el caso en que el inicio de las actividades no coincida con la entrada en vigor de la correspondiente ley de Presupuestos, el Consejo de Gobierno aprobará los presupuestos de explotación y de capital del instituto y los estados financieros provisionales correspondientes al ejercicio económico en que inicie sus actividades, y dará cuenta de ello a la Comisión de Economía, Hacienda y Presupuestos del Parlamento Vasco en el plazo de 15 días. A tales efectos, se autoriza al departamento competente en materia de Presupuestos a realizar las modificaciones presupuestarias que fuesen necesarias para la formación de dichos presupuestos, sin que puedan suponer un incremento del importe global consignado en las partidas de los Presupuestos Generales vigentes al inicio de las actividades del instituto.

Segunda.– Integración del personal adscrito a la Administración general de la Comunidad Autónoma o a sus organismos autónomos.

1.– El personal laboral que preste servicios en la Administración general de la Comunidad Autónoma de Euskadi o en una entidad dependiente de ella y que cumpla funciones que, de acuerdo con la presente ley, el reglamento de organización y funcionamiento del instituto y la normativa que se establezca, sean asumidas por dicho ente público se integrará en el mismo de conformidad con la legislación laboral aplicable.

2.– El personal funcionario que preste servicios en la Administración general de la Comunidad Autónoma de Euskadi o en una entidad dependiente de ella y que cumpla funciones que, de acuerdo con la presente ley, el reglamento de organización y funcionamiento del instituto y la normativa que se establezca, sean asumidas por dicho ente público, podrá optar por:

a) Integrarse en el Instituto Vasco Etxepare como personal laboral, con reconocimiento a todos los efectos de la antigüedad reconocida por la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi, y quedar en ésta en situación de excedencia voluntaria.

b) Mantener la condición de funcionario o funcionaria en el ente público Instituto Vasco Etxepare y ocupar en el mismo un puesto de trabajo a extinguir. Este puesto se extinguirá cuando el funcionario o funcionaria obtenga otra plaza con carácter definitivo o cuando quede vacante por cualquier causa que no comporte reserva de puesto.

Hirugarrena.— Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorraren eta haren erakunde autonomoen eginkizunak esleitzea eta baliabide eta ondasunak atxikitzea.

Gobernu Kontseiluak, dekretu bidez, Administrazio orokorreko sailen eta erakunde autonomoen egitura organikoak egokituko ditu, Etxepare Euskal Institutuari lege honetan eta antolakuntza- eta jardueraraudian zehaztutako helburuak betetzeko ezarritako eginkizunak eta behar diren giza baliabideak esleitzeko eta egoki iritzitako ondasun eta baliabide materialak atxikitzeko.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.— Lege hau indarrean sartu eta urtebeteko epean Etxepare Euskal Institutuaren antolakuntza- eta jardueraraudia onartuko du Eusko Jaurlaritzak dekretu baten bidez.

Bigarrena.— Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean lege hau.

Beraz, Lege honi men egiteko eta men eginarazteko agintzen diet, norbanako zein agintari direla, Euskadiko herritar guztiei.

Vitoria-Gasteizen, 2007ko apirilaren 26an.

Lehendakaria,

JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

OGASUN ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA KULTURA SAILA

2619

70/2007 DEKRETUA, maiatzaren 2koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren 2007ko ekitaldiko aurrekontuko «Ondare Historiko Artistikoa» 4514 programan diru-sarrerak lortu direla-eta, programa berorretan 1.021.717 euroko kredituak gaitzen dituen.

«Inmobiliaria Museo de Arte Moderno y Contemporáneo de Bilbao, S.L.» sozietatea Guggenheim museoko eraikinaren titularra da, eta kapitala 2.043.434 eurotan gehitzeko asmoa du museoko zenbait guneren eraberritze lanetan zenbait inbertsio egiteko. Diru-zenbateko horren % 50eko partaidetzak (1.021.717 euro) Eusko Jaurlaritzak harpidetuko ditu.

Tercera.— Asignación de funciones y adscripción de medios y bienes de la Administración general de la Comunidad Autónoma y sus organismos autónomos.

El Consejo de Gobierno, mediante decreto, procederá a la adecuación de las estructuras orgánicas en aquellos departamentos de la Administración general y organismos autónomos en que resulte conveniente a fin de asignar al Instituto Vasco Etxepare Euskal Institutua la funciones y medios personales necesarios para llevar a cabo los fines que la presente ley y su reglamento de organización y funcionamiento le encomiendan, y adscribir los bienes y medios materiales oportunos.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.— En el plazo de un año a partir de la entrada en vigor de la presente Ley, el Gobierno Vasco aprobará mediante decreto el reglamento de organización y funcionamiento del Instituto Vasco Etxepare.

Segunda.— La presente Ley entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Por consiguiente, ordeno a todos los ciudadanos y ciudadanas de Euskadi, particulares y autoridades, que la guarden y hagan guardarla.

Vitoria-Gasteiz, a 26 de abril de 2007.

El lehendakari,

JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA DEPARTAMENTO DE CULTURA

2619

DECRETO 70/2007, de 2 de mayo, por el que se habilitan créditos en el Programa 4514 «Patrimonio Histórico Artístico», por ingresos obtenidos en el mismo Programa del Presupuesto de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 2007, por importe de 1.021.717 euros.

La Sociedad «Inmobiliaria Museo de Arte Moderno y Contemporáneo de Bilbao, S.L.», titular del edificio del Museo Guggenheim, tiene previsto realizar una ampliación de capital para afrontar diversas inversiones de remodelación de espacios del museo, por un importe total de 2.043.434 euros, donde, el Gobierno Vasco suscribirá el 50% de las participaciones con un valor total de 1.021.717 euros.